

14 – XEDAPENAK. HIRIGINTZA ORDENAZIO BERRIA

Lurralde Antolamendurako lldoetako ingurune fisikoari buruzko lldoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, parke eolikoak zerbitzu ez linealetako (B mota) instalazioetan sartzen dira. Lurralde Plan Sektorial honetan aukeratutako kokalekuetan parke eoliko bat ezartzea onartuko den erabilpen edo jarduera bat izango da, beste inongo garapen plangintzarik gabe, proiektuak bera instalatzeko behar diren baimenak bakarrik beharko dira; berdin dio lurzorua sailkapena eta kalifikazioa, eta betiere ingurune fisikoari buruzko lldoan aurreikusitako ordenazio maila guztien barruan.

Erabilpen hori onartuko da parke eolikoko aerosorgailuak jartzeko moduko lursail batean, zabaleran. Parke eolikoaren neurri zehatzak Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak finkatuko du, proiektua baimentzeko Ebazpenean.

Energia eolikoa hartu eta transformatzeko jarduera burutzeko baimena, automatikoki, udalerriko hirigintza plangintzan sartuko da, Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartzen denean; dena den, udalek euren plangintzara sarrera hori dokumentatzeko dagokion prozedura hasi dezakete. Eta Plan loteslea da, Planaren objektuak udalerrira gainditu egiten duelako, udalerrarenak bakarrik ez diren interesak ukitzen dituelako.

Erabilpena burutuko den lur zerrenda, zabaleran, izango da aerosorgailuen besoek, luzeran, neurtzen duten halako bi; bestalde, lur zerrenda horren ardatza izango da aerosorgailuen lerroakadura. Erabilpenen erregimena modu orokorrean eta energia eolikoa hartzeko eta transformatzeko jardueraren inguruan ezartzen da. Aukeratutako kokalekuen lurrari dagokionez eta parke eolikoak kokatzeko, ondorengo ERABILPENEN ERREGIMENA ezartzen da:

1.- Baimendu daitezke

- (a) Parke eolikoak hartutako lur zerrendatik pasatu behar duten ganaduarentzat alanbrezko itxiturak jartzea edo zaintzea, zonako abeltzaintza ustiapena egoki burutzeko. Kasu honetan, langak edo beste edozein sistema jarriko dira, parke barruko bidetik pasoa ez mozteko.
- (b) Lur zerrendatik pasa behar duten lurpeko urentzat pasabideak egitea edo zaintzea. Pasabide horiek lurpeko kanalizazio elektrikoaren zorrak errespetatu izango dira.

(c) Uraskak egitea edo zaintzea, ganaduak ura edan dezan.

(d) Zuhaitzak eta zuhaixkak aldatzea; betiere baxuak, haizearen zirkulazioa ez eragozteko eta, beraz, aerosorgailuei ez kalterik egiteko.

(e) Parke barruko bideak erabiltzea, zerbitzuko autoek pasatzeko, eta baita traktoreak eta nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako autoak pasatzeko ere, euren lantokietara joan daitezen.

(f) Obrak behin amaitzen direnean, parkeko



instalazioekin benetan okupatuko den lursaila kalifikatutakoa baino askoz txikiagoa izango denez, okupatu gabe geratzen den lursaila horien jabeek erabil dezakete, ordu arte erabiltzen zutenetarako (nekazaritzarako, abeltzaintzarako...).

2.- Debekatuta egongo diren erabilpenak eta jarduerak izango dira energia elektrikoa sortzeko prozedura normalarekin eta parkeko instalazioen ezaugarriekin bateragarriak ez direnak, eta baita instalazio mota hauek behar dituzten segurtasun baldintzak errespetatzen ez dituztenak ere.

Hain zuzen, aipatutako lur zerrenda haren zonan debekatuta egongo da:

(a) Larreak, uztondoak edo beste edozein landaretza erretzea.

(b) Hegazti faunarentzat simaurtegiak edo jantoki osagarriak jartzea, gertuen dagoen aerosorgailutik hasi eta 5km baino gutxiagora.

(c) Parke barruko bideetatik motor autoetan ibiltzea, baimenduta izan ezik.

(d) Haizearen zirkulazioari eragozten dieten oztopoak jartzea.

(e) Delta hegalean, parapentean... airean ibiltzea, 80 metro baino baxuago.

- (f) Lurpeko kanalizazioei eragin diezaiekeen landaketak egitea.
- (g) Jarduera zinegetikoak burutzea.
- (h) Energia elektrikoa pasatzeko zor bideko gunean urriaren 20ko 2619/1966 Dekretuan edo horren ordeztarritako legerian xedatutakoa bete beharko da.

Dena dela, ezin izango da instalatutako aerosorgailuen ekoizpen gaitasuna murriztuko duten jarduerarik burutu, ezta parke eolikoa zabaltzea mugatuko duten jarduerarik ere.